

DMASA KILOMETROAK 2016

Haurrek haurrentzako egindako proposamena Arrizuriaga parkean

 **JENDARTEA /** amagoia.mujika@gaur8.info

Francesco Tonucci psikopedagogo eta pentsalari italiarrak esaten du haurren neurriko hiria denon neurriko hiria dela. Bergarako Airez taldea ados dago, eta Kilometroak jaiari begira horixe jarri du helmuga: galde diezaiegun haurrei zer-nolako parkea nahi duten eta egin dezagun. Eraitza bihar ikusiko da «Haurren basoa» deiturikoan.

Aranzadi ikastola-
ren bueltan eta
Bergara guztian
aztoratuta izan-
go dira honezke-
ro, iritsi baita Ki-
lometroak, urriak bigarren
eguna beteko baitu bihar. Jaialdi
erraldoiak hori izaten dira ha-
sieran; egutegian gorriz marka-
tutako data bat, bilera bat eta
beste bat, lantaldeak han eta

lantaldeak hemen, helburuak,
erronkak, eginbeharrak... Azke-
nerako, eta hitzordua bera oso
garrantzitsua den arren, bitarte-
ko bideak sekulako pisua har-
tzen du, herria egiten eta herria
josten baita bidean.
Bihar Bergaran ospatuko den
Kilometroak 2016 jaialdiak
hainbat helburu ditu. Aranzadi
ikastolarentzako errekurtsuak
lortzea da helburuetako bat, bai-

Blai-blai deituriko
prozesua hilabeteetan
luzatu da eta fase
desberdinak izan ditu.
Guztietan, baina,
haurrak izan dira
protagonista. Eta
eraitza beren neurrikoa
izango da: bihar
Arrizuriaga parkean
izango den «Haurren
basoa» deituriko gunea.
GAUR8

na baditu beste erronka zenbait,
«herritarrak hasieratik bukaera-
ra inplikatzeko eta haiek parte
hartzea», kasu. Eta erronka ho-
rretatik sortu da, hain justu,
Blai-blai prozesua, biharko jaial-
dian presentzia berezia izango
duena.

Prozesu horren bultzatzailea
Airez taldea izan da –Sara Marti-
nez, Xabi Luke, Maite Arantza-
bal eta Nerea Madariaga– eta
proiektua piztu duen txispa
Francesco Tonucci psikopedago-
go, pentsalari eta marrazkilari
italiarraren proposamena izan
da. Tonuccik «haurren hiria»
eraikitzeke proposamena luza-
tzen du, haurren ikuspuntutik
eraikitako hiria; eskoletan eta
ludoteketan preso egon gabe,
herriko eta hiriko kaleetan ero-
so eta libre ibil daitezkeen.

Airez taldeko Nerea Madaria-
garen hitzetan, «argi dago azken
hamarkadetan egin diren eral-
daketa guztietan haurrak ahaz-
tuak izan direla. Guk honako
hau esaten dugu: har ditzagun
haurrak, jar ditzagun erdian, eta
has gaitezen eraldatzen hiria be-
ren ikuspuntutik. Izan ere, hau-
rrentzako egokia den hiri bat




«BERGARAN GUZTIA PREST DAGO KILOMETROAK JAI ARRAKASTATSUA EGITEKO»

Urriko lehen igandearekin dator Kilometroak. Aurten, Bergarara. Aranzadi ikastolak hartu du jaiaren ardura bere 45. urteurrenean, eta beste urte mordo baterako indarrak batzeko helburuz. Asteon antolatzaileek nabarmendu dutenez, «Bergaran guztia prest dago Kilometroak jai arrakastatsua egiteko».

Jaia handia da, eta atzetik dagoen lana tamaina berekoa. Hartara, 1.500 boluntariotik gora ibiliko dira lanean. Bergararrak ez ezik, Gipuzkoako gainontzeko herrietakoak ere gerturatuko dira boluntario lanera. Antolatzaileek nabarmendu duten bezala, «Kilometroak auzolan handi bat» baita.

Zirkuituari dagokionez, ia bost kilometro ditu eta oso urbanoa da. Gainera, Aspacerekin egin duten lanari esker, gurpildun aulkian ere egiteko modukoa izango da. Horrez gain, Bergarako Udalak zirkuitu alternatibo bat osatu du, mendi bide aldapatsuagoa, Bergara goitik ezagutzeko aukera ematen duena.

Begarara heltzeko antolatzaileek zerbitzu publikoa erabiltzeko aholkatzen dute, lineako edo antolatutako autobusak. Lineako autobus zerbitzuak indartu egingo dituzte egun horretarako (www.pesa.net webgunean zehatzago). Jaiaren inguruko informazio osoa, www.kilometroak.eus webgunean.



Eskuineko irudian, Juan Gorriti artista Aranzadiko ikastola koloreztatzen. Udan barna Donostiako Miramar jauregian egon den Gorritiren erakusketa Bergaran dago ikusgai egunotan. GAUR8

edozeinentzako egokia izango da. Haurren beharrak asetzen dituen herri edo hiri bat edozeinen beharrak asetzeko modukoa da».

Berez Airez taldearen proposamena urteko egun guztiei begirakoa da. Baina Kilometroak aukera paregabea iruditu zaie proiektu propio bat bideratu eta martxan jartzeko.

Helmuga: Kilometroak jaiaren baitan haurrentzako gunebat diseinatu eta sortzea, parte hartze bidez eta protagonistak haurrak direla. Bidea: hilabetee-tan luzatu den prozesua, haurren, gurasoen, hezitzaileen eta gainontzeko herritarren iritziak jaso eta, guztien parte hartzearekin, paperetik errealitatera pasatu dituen.

FASE DESBERDINAK

Madariagak azaldu duenez, prozesuak fase desberdinak izan ditu. «Lehen fasean diagnostikoa egin dugu. Horretarako ikastolako haurrekin elkartu gara, bost urtekoekin eta Lehen Hezkuntzako hiru garren mailakoekin, zehazki. Horrez gain, gurasoe-kin eta ikastolatik kanpoko aisialdi talde batekin ere elkartu gara. Eta foro herritar bat ere zabaldu dugu, guztien iritziak jasotzeko eta diagnostiko osoagoa egiteko».

Prozesu interesgarria izan omen da. «Haurrak harrituta bezala geratzen dira beren iritzia jakin nahi duzula esatean. Ez daude ohituta. Egia esan oso polita izan da, eta, haiek esandakoa serio hartzen dugula konturatzean, gero eta gehiago inplikatu dira proiektuan. Gainera, haurren proposamenak sekulakoak izan dira. Irudimen izugarria daukate haurrek eta denetarik eskatzen dute. Gauza batzuk egingarriak eta beste batzuk ez. Baina bueltak eman eta eman, adostasun batera iritsi gara», segitu du Madariagak. Hain justu haurrekin egindako saio baten ondoren hitz egin du GAUR8ekin, azken egunotan josi baitituzte azken detaileak.

Eta zer eskatzen dute haurrek? «Adibidez, txirrista handi bate-tik jaitsi eta bukaeran lokatzetara erortzea. Edo hondarrarekin

ere gauza asko eskatzen dituzte. Orokorrean, zikintzea asko gus-tatzen zaie», esan du Madariagak. Eta, gurasoek, zer eskatzen dute? «Gurasoek batez ere jolas dinamikoak eskatzen dituzte, haurrak zain egon beharra ez izateko eta ilarak ez sortzeko».

Behin batzuek eta besteek zer nahi duten jasota, bigarren fasean sartu zen proiektua: jasotako ideietatik proposamen zehatzak egiteko fasea. Proposamen guztien artean aukeraketa bat egin da, bukaerako diseinura gertu-ratzeko. «Azken hitza haurrena izan da. Haurrekin osatu dugu aukeraketa hori».

Eta hirugarren fasea diseinua errealitate egitea izan da. Eta horretan aritu dira azken egu-notan; Bergarako haurren nahiak, saltoak, ametsak, txil-in-bueltak, dantzak, akrobaziak, egonaldiak kabitze moduko parke bat eraikitzen. Kilometro-ak egunerako parke bat izango da, egun baterako proiektua, baina bidean ikasi dutena urru-tirago iritsiko da. «Azken fase hau haurrek egin dute. Apainga-riak, muntaia, diseinua... beren proposamenetatik sortutako proiektua beraiek egin dute».

Emaizta bihar ikusiko da, Ber-garako Arrizuriaga parkean, “Haurren basoa” deitu duten horretan. «Denetarik egongo da; tirolinak, *enborlandia*, labirin-toa, margotzeko gunek, herri-kirolak eta, nagusiki, sormena lantzen laguntzen duten jolas li-break. Eta protagonistak hau-rrak izango dira. Jende heldua egongo da laguntzeko, baina gu-ne guztiz irekia eta librea izango da. Arrizuriaga parkea guneko lasaian dago, guneko berde ederra da, zuhaitz asko dituen. Toki aproposa da», azaldu du Mada-riagak.

Kilometroak, esan bezala, ez da egun bat izaten, ikastolak eta herriak eskutik emanda egiten duten bidea baizik. Bergaran as-ko ikasi dute Blai-blai prozesua-rekin. Haurrek ikasi dute entzu-nak izan daitezkeela eta helduek ikasi dute haurrak entzuten. Madariagaren hitzetan, emaitza ederra izan da, «parte hartu du-ten haurrentzat ez da ‘Haurren basoa’, ‘gure parkea’ baizik».